


Eski-diseinu berria merkatuan

Eski-denboraldia amaitzeko gutxi falta bada ere, eskizaleok oraindik garaiz zaudete eski-diseinu berriaren abantailez gozatzeko. Material piezoelektrikoz eginiko berunezko txarteltxo bati esker, eskia-terakoan sortzen diren

Eskien diseinu berriari esker, bibrazioak desagertu egiten dira eta eskia-terakoan dotorezia gehiago nabarmenduko da.



bibrazioak saihestu ahal izango dira eta ondorioz, gehiago nabarmenduko da eskia-terakoan dotorezia estazioetako maldetan.

Material piezoelektrikoak bibrazio mekanikoak korronte elektriko bihurtzeko erabilgarriak dira. Material horretako txarteltxoak eski-botak lotze-lekua baino zertxobait aurrerago atxikiko da. Bibrazio gehien gune horretan izaten omen da eta berauek eskiaren luzera osoan hedatzea

saihestu nahi dute. Berunezko txartelari kontrol-zirkuitu elektronikoa erantsiko zaio eta horrek seinale elektriko bilakatu diren bibrazio mekanikoak interpretatuko ditu piezoelektrizitateari esker. Interpretatzea diogunean eskien zurruntasuna murriztu eta bibrazioak geldiaraztea lortuko dela adierazi nahi dugu.

Teknologia berriaren erabilpena ez da eskietara mugatuko. Besteak beste, hegazkinetako hegoetan gertatzen diren bibrazioak saihesteko modua eskainiko duela ikusi da eta etorkizun hurbilean auto eta makina-erramintetan ere erabiliko omen da.

Murgilean busti gabe

New Yorkeko Ricco/Maresca Galeriararen hurbiltzen bazarete, erori gabe hodei gainean flotatu edo batera busti gabe igeri egin ahal izango duzue. Bitxikeria horiek grafikogintzan aritzen den Charlotte Davis asmatzailearen burutzio izan dira eta abiadura handiko Silicon Graphics izene-

ko ordenadorea erabiliz lortu ditu simulazio horiek.

Artista honen ekarpenik garrantzitsuenaren uretan murgil egitean arnasa oxigeno-bonbonarekin hartzea simulatzea da. Osmose izeneko erakusketak horretan bisitariak buruan kasko bat jarri edota betaurreko bereziak janzten dituzte lehenik. Gero, gorputzean sensoreak itsasten dizkiete eta horiek bularraldearen espantsio eta uzkurdurak neurtzen dituzte, informazioa ordenadoreara bidaliz.

Hasera batean sensoreak diafragmatik gertu kokatzen zituzten, baina bisitari arruntak arnasa sakonki hartzeko ohiturarik ez duenez, kaxa torazikoaren inguruan itsatsi behar izan zuten sensoreak. Ordenadore-bidez sortutako giroa erabiltzaileak sentitu ahal izan dezan, irudiak ahalik eta azkarren ikustea lortu behar da. Badakizu irakurle, amets egin nahi baduzu hurbil zaitez Ricco/Maresca Galeriarara.

Ezkatuko informazioa Internet-en

Albiste honen protagonista ez da apika oso ezaguna, baina berak diseinatutako programa arrunt ezaguna da interneten zaleentzat. Philip Zimmermann ikerlariari ari gara edo zehatzago esanda, bere PGP izeneko programaz. Fun-



Zimmermann-ek "PGPhone" izeneko programa kaleratu du Internet-en. Telefono-deiak kodifikatzen ditu programa berriak.

tsean PGP izeneko programak posta elektronikoen ezkatuko erabilera ahalbidetzen duen agindu-sorta biltzen du. Zimmermann kriptografian aditua da eta ezkatuko kode asko erabili du bere programa osatzeko. Makina bat buruhauste eragin dio programak bere egileari, EEBBetako agintariak ez baitute begi onez ikusi ezkatuko informazioa igortzea eta jasotzea ahalbidetzen duen sistemaren zabalpena. Nolanahi ere, kritika eta oztopo horiek ez dute gure programatzaileak trebea atsekabetu eta duela gutxi, "PGPhone" izeneko programa kaleratu du Internet-en. Macintosh edota Windows erabiliz, telefono-deiak kodifikatzen ditu programa berriak eta erabiltzailearen nortasuna ezkatuan gordetzen du horrela nahi izanez gero. Hori guztia esan eta gero, badira derrigorrez egin beharreko ñabardurak: EEBBetako legeak ez du era horretako programak kanporatzea baimentzen eta Frantzia bere erabilera galerazita dago. Erne beraz, Interneten zaleok!

